

176 urria 2009_ www.ikastola.net

ikastola



NAFARROA OINEZ BERRAIN MENDIARI BEGIRA


FORTNIGHT IMMERSION TO "EXPLORERS"
IMANOL IGEREGIREKIN, EHI-KO ZUZENDARIA, SOLASEAN
MUNDUKO IKASTOLA TXIKIENA BIDARTEN



Euskal Herriko Ikastolak EUROPAR KOOPERATIBA ELKARTEA AURKEZPEN EKITALDIA



EHIKATZENTRAREKIA



Erreferentziako txartela: Finantza-txartelen erraztasun guztiekin eta gainera...

Bidaia-asistentziako doako aseguruabantailak era guztietako 2.000 establezimendutan.

Deskontuak mundu osoan izateko giltza.

Kontsultatu BBK26 gida, www.bbk.es

orrian



3 ELKARRIZKETA: IMANOL IGEREGI REKIN, EHI-KO ZUZENDARIA, SOLASEAN
 8 JOLASTOKI ESTALIAK ETA GELA BERRIAK AMURRIOKO ARESKETAN
 10 TXORIERRI POLITEKNIKA IKASTEGIA
 12 FORTNIGHT IMMERSION TO "EXPLORERS"
 14 MUNDUKO IKASTOLA TXIKIENA BIDARTEN
 16 NAFARROA OINEZ BERIAIN MENDIARI BEGIRA
 16 ERREPORTAJEA: ARTEZKARITZA ETA ZUZENDARITZA TALDEAK AURKEZTU ZITUEN EHIK LEIDORREN

EDITATZAILA: IKASTOLEN KONFEDERAZIOA
 Zamudioko Teknologia Elkarteak, 208 B-1
 48170 ZAMUDIO
 Tel.: 906 33 41 45

KOORDINATZAILA: Zurline Mendizabal
 aldizkaria@ehik.ikastola.net

ERREDAKZIOA: Joxean Agirre eta Eva Domingo

EUSKARA ZUZENTZAILA: Imanol Artola

DISENUA ETA MAKETAZIOA: Txema Garzia Urbina

INPRIMATZAILA: GERTU Inprimategia.

Oñati. Tel.: 943 78 33 09
 ISBN: Ikastolen Konfederazioa,
 84/933872/66

URRIA 2009

IKASTOLA ALDIZKARIA  www.ikastola.net

ELKARRIZKETA 

Imanol IGEREGI

EHI-ko zuzendaria

“XX. mendean ikastolen ekarpena euskara eta euskal kultura izan baziren, mende hasiera honetan euskal curriculumak eta honen garapena izan daitezke”



Ikastola ezberdinetan ardurak bete izan ditu, Erkide irakas-kuntzako kooperatiba elkarteko lehendakari ere bai azken urteotan, mugimendu kooperatiboren ordezkartzan aritua eta lan-hitzarmenaren negoziatioari arloari lotuta egin du lan Partaiden, pedagogia eremua arrotza ez zaiolarik. Ikasketaz, OHOk irakaslea eta Psikologaria (industria adarrean) izanik, Ikastoletan egin duen ibilbidea laburtzeko eskatu eta algarabatekin erantzun digu, luze samarra baita bi hitzetan agertzeko.

DEUSTUKOA DA. Aitak Deustu udalerriz zen garaia ezagutu omen zuen. Bere kolaborazioa 1998-93 bitarteko publikazio-prozesuan hasita, 1993an EAE ezarri zen Eskola Publikoaren Legeak ikastola mugimendua as-



tindu egin zuen, eta integratu ez ziren ikastolak egituratzen areagotu zen bere lana mugimenduan. Ostiralero, Donostiako Xanti tabernan, ogitarteko bana jan eta egiten omen zituzten bilerak Inaxio Arregik, Iñaki Zubeldiak, Jon Zurutzak, Jose Luis Sukiak eta berak. Hortik eta Zornotzan biltzen zen ikastola talde baten ekimenez jaio zen Partaide. "Publiko-pribatu auzi horretan EAEko ikastolen bi herenek aurrera egitea erabaki zuten eta heren bat bakarrik integratu zen sare publikoan. Ikastola taldean antolamendua jota geratu zen, eta zuzendari zein gerente batzuk halabeharrez bilerak egiten hasi ginen genituen beharrei erantzuten hasteko eta, nolabait esateko, 'basamurtuko zeharkaldia' antolatzeko. Biziraupena segurtatzeko sortu zen, beraz, Partaide. Egitura berri honek ezaugarri bat izan zuen orain egituraketa berrira ekarri duguna: erabaki guztietan ikastolei partaidetza eta erabakialahalten zuzenak ematea", esan zuen.

Noiz hasten dira ikastolak aurten konfiguratu duten egituraketa berriari buruzko gogoe-tak egiten? IMANOL IGEREGI: 1995etik aurrera

esango nuke hasten direla gogoeta hori bideratzen. Bilduko gaituen kooperatiba bakar baten sorrera planteatzen hasi ginen. Urte horretan sortu zen Partaide bera ere. Formalki lehen batzar eratzailera Arantzazun egin zen. Batzar horretan ikastola guztiak bere baitan bilduko zituen bigarren graduako kooperatiba bat sortzea proposatu zen, eta orain izan ditugun antzeko tirabirak sortu ziren ikastola mugimenduaren baitan. Se-

gur asko, epe laburreko lan betekada eta premiak gaiturik, erdiko epe batean komeniko litzaziguke tirabira horien sustraietara joan eta gogoeta gehiago egitea aurrera begira hanka-sartzerik errepika ez dezagun. Nire ustetan, batzuetan errezelok agertu dira mugimendua osatzen duten herrialde txikien aldetik. Gurea oso mugimendu anitza da, eta aniztasun hori kudeatzen ikasi beharko genuke. Ez da erraza gaur eta ez da erraza izan lehen ere. Noizbehinka, lurraldeko ikastola talde bakoitzak dituen nortasuna eta izaera egitura handiagoei irentsiko ote dituzten arrenkura agertu da.

Batzarra eta gero zein da egoera? Nola ari zarete egitura zaharretik berrirako pausoak bideratzen? Lehenik eta behin ikastolen bazkide-tza prozesua amaitu behar dugu eguberriak bitartean. Iparraldean amaituta dago bazkide-tza hori, Bizkaian eta Araban oso aurreratuta dago eta motelagoa doa Gipuzkoan, baina urteko batzarrak beranduago egiteko ohitura dutelako da, ez dago horretan beste arrazoirik. Eguberriak aurretik organo berrien funtzionamendua erabat normalizaturik behar dugu izan; proiektu guztien kudeaketa zuzendaritza bakar baten eskuetan jarri behar dugu. Kontuan izan behar da herrialdeko federazioetan oinarritutako egoera batetik ikastoletan oinarritutako den egoera batera goazela; prozesu hori ere urtea amaitu aurretik burutu nahi genuke. Bien bitartean erakunde zaharren eta berriaren arteko koordinazio bat eraman behar da. Hortik sortuko diren gaien in-




Imanol Igeregi

“Langile guztien berrantolaketa egin behar dugu, guztientzako lan-marko bera eraikitzen hasi behar dugu, hauen partaidetza-maila egitura berrian adostu eta, azkenik, Plan Integralean zintzilik dauden hainbat zehaztapen egitea ere falta zaigu.”

guruan erabakiak hartzen ari gara. Ezinbesteko beste gai bat taldearen bideragarritasun ekonomikoa aztertzea da. Langile guztien berrantolaketa egin behar dugu, guztientzako lan-marko bera eraikitzen hasi behar dugu, hauen partaidetza-maila egitura berrian adostu eta, azkenik, Plan Integralean zintzilik dauden hainbat zehaztapen egitea era falta zaigu. Hori guztia ikastolei zerbitzuak ematen eta elkarlanean jarraituz burutu behar dugu.

Ikastolen bazkidetza prozesua eguberritarako bukatuko dela esan duzu. Salbuespena NIE izango da. Nafarrekin prozesu paralelo bat egin beharko da. Dagoeneko ari gara bilerak egiten. Elkarrizketarako bideak berreskuratu dira. Konfiantza giroa sortzea zailagoa izaten da, baina horretarako baldintzak lantzen ari gara.

Taldearen bideragarritasun ekonomikoa ere aipatu duzu eginbeharren zerrenda horretan. Momentuz ez dugu baliabide ekonomikoaren inguruko azterketa bukatu. Orain artean Federazio bakoitzak, Partaidek eta Konfederazioak egiten zituzten haien zenbakiak. Krisialdiak diru-laguntzen murrizketa ekarriko duela kontu segurua da. Gerrikoa estutzen ikasi beharko dugu. Erabakiak hartzeko garaian agertoki bat baino gehiago irudikatu beharko dugu. Orain arte ariketa intelektual asko egin dugu eta ondo dago hori, baina zenbaki gutxi. Egituraketa sinplifikatu egingo dugu eta, teoriar gutxienez, gastuak gutxitu egingo dira. Dena den, orain arte ikastola mugimendu osoaren ikuspegi orokorrik ez da egon baliabideak kudeatzeko garaian. Abagune zail batean hasi beharko dugu ikuspegi horrekin lan egiten. Orain arte Konfederazioak lauzpabost milioiko aurrekontua zuen, Partaidek hiru milioikoa, GIEk zortzi milioikoa... baina ez zegoen ikuspegi orokorrik eta, batzuetan, lehiarako aukerak sortzen ziren gure artean. Irabazteko asmorik gabea, baina enpresa bat gara, eta ikastola guztien, baita ikastola taldearen egonkortasuna zaindu beharko ditugu. Enpresa beza-



“Bideak ere erakutsiko digula zein den antolaketa eredurik onena.”



la gauzak ondo egitea eta erabakitze-prozesuan ikastolekiko harreman estua izatea giltzarriak izango dira. Bide honetan, ikastola jakin batzuentzat elkartasunaren balioa eta Elkartasun Kutxa nazionalaren funtzionamendua oso garrantzitsuak izango dira.

Enpresaren egituraketa ere konplexua al da? Enpresaren egituraketari dagokionean, bi proposamen jarri ziren mahai gainean. Batzuek gure eginberrara lau enpresatan bantzea proposatzen genuen eta beste batzuek enpresa nagusi handi batean biltzea. Hegazkin-ontzi hitza erabiltzen zen bigarren enpresa hau izendatzeko. Azken batean itsasontzi bakar batean langileak antolatzea zen helburua. Bigarren proposamen honek lortu zuen atxikimendu gehiago. Nik uste dut bideak ere erakutsiko digula zein den antolaketa eredurik onena. Kudeaketarako, lan-hitzarmenerako eta beste zeregin batzuk jorratzeko enpresa laguntzaile txikiak sortu be-

“Bi ideia daude: euskal ondarearen transmisioa eta kompetentzien bidezko curriculumua.”

harko dira. Esate baterako, Ikasys-en proiektioa, baina beste langile guztiak egitura bakar batean kokatuko dira. Honetaz gain, traera fiskala, proiektuen kudeaketa, ikastolekiko harremanak eta beste zeregin batzuek konplexutasuna gehitzen diote egituraketari. Dena den, ikastoletan gardentasuna eta partaidetza ikurrak izan badira ere, ezaugarri honen garrantzia gerora azpimarratu beharko dugu, konfiantzaren eta kudeaketa egokiaren oinarrian daude eta.

Ikastolen egituraketari buruz aritu gara. Baina gizarteari begira, zein izan daitezke ikastola taldearen egiteko nagusiak? Curriculumua izango da datozen urteotan gure egitekoen ardatza. XX. mendean ikastolen ekarpena euskara eta euskal kultura izan baziren, mende hasiera honetan, globalizazioaren garaian, euskal herritarasun berritua bultzatu nahian, euskal curriculumua eta honen garapena izan daitezke. Bi ideia daude planteamendu honen azpian: euskal ondarearen transmisioa eta kompetentzien bidezko curriculumua. Horrek pedagogia arloan aldaketa handia suposatzen du, lehen curriculumaren oinarria jakitea bazen, aurrerantzean jakitea eta egiten jakitea izango baitira.

Zein dira zure kezka nagusiak datozen urteei begira? Nire kezka nagusietako bat titularren presentzia eta partaidetzari buruzkoa

da, eta titularrak diodanean gurasoak ditut go-goan nagusiki, gurasoen kooperatibak baitira ikastolak, baina baita titular gisa jokatu nahi duten langileak ere. Presentzia hori ahultzen ari dela ikusten dut, eta jaberik gabeko ikastolarik ezin da egon. Jabego horrek, noski, partekatua behar du eta, ahal izanez gero, langileen atxikimendua ere suspertu egin behar dugu. Nire beste kezka nagusietako bat irakasleei buruzkoa da. Plan Integralean ez da auzi hau aipatzen, baina oso garrantzizkoa dela uste dut. Bost urtetan irakaslerik gabe gera gaitzke, modu baldar batean esateko. Arazo handi bat dugu: 2020rako gure 1.100 langile jubilatuko dira, gure langileen herena. 2020tik 2025era %20 gehiago jubilatuko dira. Hogei urtetan ikastoletako plantilla osoa aldatu behar dugu. Eztabaida prozesu honetan ez dugu apenas horretaz hitz egin. Dagoeneko ordezkapenak egiteko langileak aurkitzeko arazoak dituzte ikastola batzuetan, sare publikoan lan baldintza hobeak dituztelako gehienbat. Nola erakarriko ditugu gure ereduarekin identifikatzen diren langileak? Derrigor jorratu beharreko arloa da hori. Beste gai bat: gero-zein izan daiteke zuzendarien/zuzendari-tza taldeen eginkizuna ikastoletan, titularren presentzia nolabait ahultzen den unean?

Administrazio eremu ezberdinetan indarrean dauden legediak aldatzeko zer aukera izan ditzake ikastola taldeak? Ikus-

ten al da aukerarik? Ikastolen taldeak ekarpenak egin behar ditu arlo horretan, baina neurri batean bakarrik dago ekimen hori gure esku. Zerbitzu publikoaren inguruko planteamendua berritu egin beharko dugu. Azken urteotan lan egin dugu eremu horretan, baina gauzak dauden bezala, legealdi honetan EAEn esate baterako ez dut ikusten Gobernuak gai honetaz aurrerapen esanguratsurik planteatzeko tenorean.

Bukatzeko, kontu iezaguzu gainetik ikastoletan zuk zeuk egin duzun ibilbidearen berri. Hogeita lau urte eman nituen ikastola ezberdinetan lanean. Bost urte eman nituen Gernikan, beste bi urte Urretxindorran, Altzagan lau eta Sopelako Ander Deunan hamahiru, eta azken bi ikastola horietan zuzendari izan nintzen. Sopelara Ikastolen Elkartearen eskutik joan nintzen bertan zegoen barruko egonezina baretzera-edo. Gogoan dut ni joan eta lehen batzarrera 484 bazkide etorri zirela eta zaila baldin bada ere, berdinketa eman zen bozketan. Igande goizetan egiten ziren orduan batzarrak eta tentsio nabarmena zegoen. Beste batzar bat antolatu behar izan zen hautagaitza bat aukeratu ahal izateko. 1988ko kontuak dira horiek. Handik lau urtera ikastolak publikazioaren auzia eztabaidatu, eta gurasoen %95eko gehiengo batek ikastola bezala aurrera jarraitzea erabaki zuen. **ikas@ola**

UN DIRECTOR ACOSTUMBRADO A LAS SITUACIONES COMPLEJAS

A Imanol Igeregi, el nuevo director de Euskal Herriko Ikastolak, le ha tocado vivir a lo largo de su trayectoria en estas situaciones de cierta complejidad, pero sin duda el último cargo es el que más retos le plantea. Está dirigiendo el difícil proceso del transvase de funciones y trabajadores de la estructura basada en las federaciones a la

nueva cooperativa. En relación directa con el Consejo Rector, está impulsando al proceso de adhesión de las ikastolas a la nueva cooperativa, un proceso que va a buen ritmo. Participa activamente en la vía de conversaciones abierta con las ikastolas navarras que decidieron congelar el proceso de adhesión y sueña con que los

cimientos de la nueva estructuración de las ikastolas esté lista para Navidades. Su trayectoria profesional comenzó como profesor de ikastola, ha sido director de las ikastolas Altzaga de Erandio y Ander Deuna de Sopela y le tocó responsabilizarse de la negociación de los convenios colectivos en Partaide. En esta

entrevista, pasa revista a los retos que se plantean las ikastolas en esta nueva fase y augura que si la aportación primordial de éstas en la segunda mitad del siglo pasado fue el trabajo en torno al euskara y la cultura vasca, en los inicios del presente siglo, en el contexto de la globalización, pueden el currículum vasco y su desarrollo.

UN DIRECTEUR HABITUÉ AUX SITUATIONS DIFFICILES

Un nouveau défi de taille attend Imanol Igeregi, le nouveau directeur de Euskal Herriko Ikastolak : il doit diriger le difficile processus de transfert des fonctions et des salariés des actuelles fédérations vers la

nouvelle coopérative. En relation directe avec le Comité Directeur, il mène à bon train le processus d'adhésion des ikastola à cette nouvelle coopérative. D'abord enseignant à l'ikastola, il a ensuite été directeur des ikastola Altzaga

de Erandio et Ander Deuna de Sopela et a été chargé de la négociation des conventions collectives au sein de Partaide. Il nous passe en revue les défis futurs des ikastola et précise que si le principal apport de celles-ci a

été jusqu'à présent de travailler en faveur de la langue et de la culture basques, à partir de maintenant, vu le contexte de globalisation, elles s'attacheront davantage à mettre en place et à développer le curriculum basque.

JOLASTOKI ESTALIAK ETA GELA BERRIAK AMURRIOKO ARESKETAN

Bi solairuko eranskin originala ikastolaren bueltan

Proposamen arkitektoniko originala erabili dute Amurrioko Aresketa ikastolan aspaldidanik behar zituen jolastoki estali, gela berri eta gurgildun aulkientzako arrapak egiteko. Ikasle ohi bat, Koldo Sakristan arkitektoa, izan da proiektuaren bultzagile nagusia. Altxatu duten eranskinari esker 6-16 urteko ikasleentzat premiak aseta geratzen dira. Haur Hezkuntzarako premiak asetzeari etorkizuneko erronka dute.

JOLASTOKI estalien premia izan da Aresketa ikastolako partaideen artean hitzetik hortzera aipatzen zen arazoa. Jolastoki estaliez gainera, jabetzea zabaldu, gimnasioa handitu, ezinduentzako arrapak atera eta liburutegia, fisioterapia eta erabilera anitzeko gela bat aterako dituzte eraikuntza nagusiaren kontra altxatu duten eranskinen. "2005ean Araba Euskaraz ere horretarako antolatu genuen, jolastoki estaliak egiteko, alegia. 140.000 euro bildu genituen eta horrekin hasi ginen zer genezakeen ikusten. Ondoa dugun kirol-tokia estaltzeko aurrekontuak eskatu genituen eta 400.000 euroko proposamena egin ziguten. Erreferentzia hori buruan genuela, ikastolako azpiegitura mailan dituen gabeziak aztertzen hasi

ginen. Oraindik gurekin lan egin duen Pedro Iturrate arkitektoari deitu genion, eta honek Koldo Sakristan gure ikasle ohi izandako arkitektoaren izena eman zigun. Bera izan da proiektuaren bultzagile nagusia, berarekin batean beste hiru arkitekto aritu badira ere, denak gazteak eta Donostiako fakultatean ikasiak", esan zigun Ramon Azurmendi ikastolako zuzendariak. Mahai baten bueltan eseri eta ikastolaren eguneroko bizimoduaren ikusten zituzten gabezien azterketa bat egin zuten. "Atzeman zituzten gabeziak kontuan harturik, proposamen integratu bat egin zigun arkitekto taldeak —Juan Pedro Gorosabel, taldeko arduraduna, Koldo Sakristan, Nuria Lazkano eta Zuriñe Gobantes, azkenik Leire Ibarrola aparejadore moduan— eta

ikastolaren erdia inguratzen duen eranskin bat altxatu dugu. Hiru gabezia nagusi genituen: muga arkitektonikoak saihesteko arrapak batetik, teulatuko urak biltzeko ubideak eratzea bestetik, eta jolastoki zein gela berriak behar genituen azkenik. Eranskinarekin arazo horiei erantzutea lortu dugu", jarraitu zuen Patxi Lasarte ikasketa-buruak.

Beheko solairuan, 242 metro koadroko gimnasio gela atera dute. "Aresketa ikastolaren espazio guztiak Amurrioko talde ezberdinen eskura daude. Talde asko daude eta gure azpiegiturak erabiltzeko aukera dute", gogoratu zuen zuzendariak. Goiko solairuetatik jantokira edo jolastokietara joateko arrapak egin dira, eta etorkizunean jantokia handitzeko leku bat ere utzi dute. "Bi txanda eta erdi egiten ditugu jantokian, ikasle erdiak bertan geratzen direlako. Etorkizunean jantokia zabaltzeko aukera zabalik utzi nahi genuen", gogoratu zuen Ramon Azurmendi. Goiko solairuan, liburutegi handi bat, ikus-entzunezkoen gela, fisioterapia eta irakasleen gelak aterako dituzte.

Proiektuaren aurrekontua milioi eurokoa da. "Hasierako diru kopuruak, Araba Euskaraz bidez Euskal Herriko solidaritateari esker lortuak, ikerketa egin eta lehen pausoak emateko balio izan ziren. Proiektuaren finantziazioarekin suerte pixka bat izaten ari gara. Muga arkitektonikoak kentzeko Jaurkitzako Hezkuntza sailak laguntzak



JUAN PEDRO GOROSABEL, NURIA LAZKANO, ZURIÑE GOBANTES, LEIRE IBARROLA ETA KOLDO SAKRISTAN ARKITEKTO ETA PROFESIONAL TALDEA.

KOLDO SAKRISTAN "Haurtzarora itzultzea bezala izan da"

Ilusioa egin al zizun ikastolatik deitu zizutenean? Sekulako ilusioa egin zidan. Karrera amaitu berria nengoan, nekatuta eta herritik kanpo neramatzan urte batzuk eta ikastolako proiektua egiten hastea herrira itzuli, euskaraz hitz egiten hasi eta berriro haurtzarora itzultzea bezala izan zen.

Zere oroitzen dituzu ikastolaz?

Oso memoria txarra dut oroitzenetarako, baina lan hau egiteko ikastolara itzuli eta nire maisu izandako batzuekin topo egin behar izan nuen eta horrek ahazturik nituen kontu asko berritu zizkidan. Atsegina, berezia eta polita izan da. Ikastolako bigarren promozioiko ikaslea izan nintzen eta uste dut oso heziketa ona jaso genuela eta batez ere herrian integraturik bizitzen erakutsi zigtela. Ikastolako eraikuntzari buruz, berriz, premietara oso ondo egokitzen den eraikuntza bat egiten asmatu dugu denon artean. •

HANDITZEA

Portxeak: 368 m²
 Balioanitzeko Gela: 160 m²
 Liburutegi berria: 160 m²
 Fisioterapia gela: 40 m²
 Bilera Gela: 40 m²
 Gimnasio berria: 242 m²
 Biltegia eta instalazio gunea: 81 m²

IRISGARRITASUNA

Arrapak eta banatokiak: 488 m²
 Zerbitzu egokituak: 24 m²



"Aresketa Ikastolaren espazio guztiak Amurrioko talde ezberdinen eskura daude. Talde asko daude eta gure azpiegiturak erabiltzeko aukera dute."

ematen ditu eta 160.000 euro lortu ditugu. Hezkuntza Kooperatibetan inbertsioak egiteko diru-laguntzak ematen dituzte tarteka eta 400.000 euroko mailegu bat lortu dugu oso baldintza onetan. Mailegu horiek lortzeko abantaila izugarria dugu, atzetik Ikastolen Elkarteak dugulako. Une honetan lehen fasea, egiturarena, amaiturik dugu. Bigarren fasea burutzeko proiektuaren %20 falta zaigu; beraz hurrengo faseak denboran eta hauen finantziazioa lotzen ari gara. Udalaren lurretan dugu egoitza. Herriko elkarteentzako irekiak egon dira beti, eta zesio hitzarmen bat izenpetu nahi dugu Udalarekin hark guri diru-laguntza bat eman diezagun. Hartara, urte urte proiektua osatzu joango ginatke; ondo hasitako ekimenei amaiera duina bilatu behar diegu", esan zuen Ramonek.

Aresketak 452 ikasle ditu, 2 urtetik 16ra bitartekoak. Duela zortzi urtera arte HH eliza ondoko barrakoi batzuetan zuten, eta lurte handi bat suertatu zelarik, egoitza nagusira ekarri behar izan zituzten sei gela, han-hemenka egokitzen ari zirenean. "Badakigu pixkanaka 0-2 urteko tartera jaitsi behar dugula; baimenak eskatuta ditugu, herrian bertan zerbitzu hori ematen da eta premiak sortzen direnean hasiko gara horretan. Baina lekua da arazoa. Bi urteko bi gelak txalet txiki batean ditugu, baldintza onetan, baina ez dugu beste lekurik. 2013rako Araba Euskaraz eskatua dugu eta hurrengo erronka HHrentzat zentro integral bat osatzea da", esan zuen Ramonek. •

SOLUCIÓN ARQUITECTÓNICA ORIGINAL

(GRACIAS A LA CELEBRACIÓN DEL ARABA EUSKARAZ DE 2005 ESTE CENTRO EDUCATIVO VE MEJORADAS SUS INFRAESTRUCTURAS. MUCHAS GRACIAS.) La ikastola Aresketa de Amurrio ha optado por una solución arquitectónica original que resolverá definitivamente los problemas de espacio que desde su creación arrastraba. Lo que empezó siendo un proyecto de cubierta para el campo de fútbol ha terminado convirtiéndose en una solución integral que da respuesta a las necesidades de espacios cubiertos para los alumnos en horarios de recreo, la ampliación del gimnasio y del comedor, así como la creación de un aula de usos múltiples, la nueva biblioteca y un aula de fisioterapia. El nuevo edificio ha sido proyectado por un grupo de arquitectos, Koldo Sacristán, ex alumno del centro, Juan Pedro Gorosabel, responsable del grupo, Nuria Lazkano, Zuriñe Gobantes, y Leire Ibarrola como aparejador.

SOLUTION ARCHITECTONIQUE ORIGINALE

(GRÂCE À L'ORGANISATION DE L'ARABA EUSKARAZ 2005, ARESKETA IKASTOLA A DEMARRÉ LES TRAVAUX.) L'ikastola Aresketa d'Amurrio a opté pour une solution architectonique originale qui résoudra définitivement le manque de place que connaît l'ikastola. En effet, le projet initial de couverture du terrain de football s'est transformé en un projet pour un nouvel espace abritant une extension du gymnase, une cantine, une salle polyvalente, une bibliothèque et une salle de physiothérapie. Koldo Sacristán, ancien élève de l'ikastola, figurait dans le groupe d'architectes ayant pensé le nouvel édifice et a travaillé aux côtés de Juan Pedro Gorosabel, responsable du groupe, Nuria Lazkano, Zuriñe Gobante et Leire Ibarrola.



JUAN ANJEL SAN VICENTE, ZUZENDARIA ETA MARIVI MARCO, IKASKETA BURU IKASTETXEAREN ATARIAN.

TXORIERRI POLITEKNIKA IKASTEGIA

Lanbide Heziketako zentro aitzindari bat zergatik sartu den Ikastolen Elkarte

Bizkaian Urrezko Q saria eskuratu zuen Lanbide Heziketako lehen ikastetxea izan zen. Derion 1979an eraiki zuten egoitza bikainean 400 ikasle ditu hezkuntza arautuan eta beste hainbeste ez arautuan. Kooperatiba integrala da, eskualdeko udalak, enpresak, gurasoak eta irakasleak biltzen baititu bere baitan. Bere ikasleen %70 euskarazko ereduarekin zatorrela ikusirik, irakaskuntza euskalduntzen hasi ziren eta Ikastolen Elkarte integratuz bukatu dute. Zuzendariarekin eta ikasketa buruarekin mintzatu ginen ibilbide horren berri jakiteko.

Urteak dira Txorierr Politeknika Ikastegia hezkuntza euskaratzeko lehen pausoak ematen hasi zela. Bultzada hori ikastetxea bera hasi zen ematen. "Enpresen aldetik orain arte ez da sumatu izan zoriturrez euskararen aldeko eskakizunik. Askoz ere garrantzi handiagoa eman izan diote atzerriko hizkuntzari, ingelesari", hasi zen Juan Anjel San Vicente, Txorierrri Ikastegi Politeknikoaren zuzendaria,

ikastetxeak Ikastolen Elkarte sartzeko egin duen ibilbidea agertzen. Hogei urte daramatza kargu horretan eta inon kontsultatu beharrik gabe hitz egiten du, argi eta azkar. "Heziketa ziklo berriak antolatzen genituenean hasi ginen hezkuntzaren euskalduntzeaz arduratzen. Guk zera erabaki genuen, hala nola, irakasleak euskaraz, gazteleraz eta ingelesez lan egiteko gai direla atera behar genituela. Ziklo

ezberdinei komunak zaizkien gaiak euskaraz, ingelesez edo gazteleraz ikasteko aukera eskaintzen hasi ginen. Gure ikasleen %70 euskarazko ereduarekin ikasketak eginda etorri dira Lanbide Heziketara eta guk, aldiz, gure irakaskuntzaren %70 gazteleraz ematen genien eta %15a euskaraz eta beste horrenbeste ingelesez. Portzentaje horiek aldatu egin nahi ditugu eta gure hezkuntzaren %70 euskaraz eskaini. Helburu

hori garbi genuela, euskalduntze plan bat diseinatu genuen. Irakasle gazteenak birziklatzen ari gara eta zaharrenak jubilatu ahala euskaraz lan egingo duten irakasleak kontratatuz joango gara. Egina dugun egutegiaren arabera, 2017-18 ikasturterako iritsiko ginateke helburutzat jarri ditugun euskalduntze zifra horietara", jarraitu zuen. Txorierrri Politeknika Ikastegian 400 ikasle ditugu arautuan eta 450 ez

arautuan. Orain dela gutxi birziklatzen ari ziren langile aktiboak ziren nagusi bigarren multzo horretan, baina langabetuen presentzia izugarri gehitu da azken urteotan. Batxilergoa eskaintzen dute, eta Lan Heziketan, berriz, erdi mailako ziklo bat eta goi mailako sei (mekanikaren arlokoak, elektronikaren eta telekomunikazioak, kimika eta marketina).

BIEREKIN HITZARMENA
Euskalduntze prozesu hau indartzeko Ikastolen Elkarte bazkideztoko izenpetu zuen urtarrean Txorierrri Politeknika Ikastegiak BIERekin hitzarmena. "Hitzarmenaren helburua ez da bakarrik hezkuntza bera euskalduntzea; euskara ikasleen eta irakasleen arteko komunikazio hizkuntza bilakatu nahi dugu eta horretarako bitartekoak jartzen ari gara, gai konplexua bada ere", esan zuen bestalde Marivi Marko ikasketa buruak.

"Arazoak aipatzen hasi garenez, material didaktikoen falta ere aipatu behar da. Argitaletxeek ez dute Lanbide Heziketa kontuan hartu. Gure arloan espezialitateak oso ugariak dira eta badirudi ez dela errentagarria material horiek argitaratzea. Gazteleraz ere oso material gutxi dago eta geu ari gara behar diren materialak euskaraz prestatzen", erantsi zuen Marivi.

Txorierrri eskaintzen dituen zerbitzuen artean badaude On Line eskaintzen dituzten ikastaroak ere, aurrez aurreko klaseekin konbinatuta, noski. "Metodologia berritzaileekin ari gara lanean arlo honetan. Taldeka eta proiektuetan lan eginez ikasten dute ikasleek informazioa bildu eta arazoak ebasten, irakuntze prozesu laguntzarekin, noski, horretarako baitaude Interneteko plataformak. Beren lanak eta emaitzak Moodlen argitaratzen dituzte, esate baterako", jarraitu zuen Marivi.



"Hitzarmenaren helburua ez da bakarrik hezkuntza bera euskalduntzea; euskara ikasleen eta irakasleen arteko komunikazio hizkuntza bilakatu nahi dugu eta horretarako bitartekoak jartzen ari gara, gai konplexua bada ere."

Euskalduntze prozesuaren alderdi hauetako asko bildu dituzte BIERekin izenpetutako hitzarmenean. "Pare bat urte eman ditugu hitzarmena prestatzen. Gure egoera ere berezia da. HETEL elkartearen ere bagaude eta beti defendatu izan dugu Lanbide Heziketa euskalduntzeko ikastetxe berriak eraikitzea baino hobe zela martxan daudenak euskalduntzen hastea. Gu hasieratik izan gara kooperatiba eta kudeaketa eredu aldetik ere komunitasun erabatekoa genuen ikastolekin. Euskalduntze prozesu hauek, ordea, kostu handiak dituzte. Egin genituen kalkuluen arabera, urteko 40.000 euroko zama ekartzen zigun bide honetatik abiatzeak, irakasleak euskalduntzeko liberatu egin behar baitira eta ordezkoak ordaindu. Prozesu hau aurrera eramateko Ikastolen Elkarte laguntza ezinbestekoa dugu, bai proiektuetan bai beste

bitartekoetan. Zentzu horretan Ikastolen Elkartearen duen Elkartasun Kutxako zenbait irizpide aldatzea eskatzen dugu gu bezalako Lanbide Heziketako ikastola berrien egoerara egokitzeko", jarraitu zuen ikastegiko zuzendariak. Hitzarmena izenpetzeak Txorierrri Ikastolen Elkartearen sartzeko ekarri zuen. "Bai, bai, kuotak ordaintzen ari gara dagoeneko. Euskal Herriko Ikastolak kooperatiba sartzeko ere informazio osoa dugu eta prozesua martxan jarri dugu", esan zuen Juan Anjelek. Txorierrriko udalerriez gainera, Bilbo, Santurtzi eta Bermeoraino

iristen da ikasleen jatorriaren esparrua. "Enkarterrietara salbu, Bizkaia osora zabaltzen dugu gure lan esparrua. Garraio publikoetan etortzeko arazo handiak dituzte askok. Hemen bertan Zamudioko Teknologia Elkarteia izanda, metroa luzatu beharko lukete honaino", esan zuen San Vicentek.

TXORIERRI YA ES PARTE DEL MOVIMIENTO DE IKASTOLAS

En enero de este año, Txorierrri Politeknika Ikastegia se asociaba al movimiento de ikastolas. La federación de ikastolas de Bizkaia y Txorierrri establecían un calendario de euskaldunización de los servicios que oferta este centro de Formación Profesional, la primera que cuenta con un Q de oro de calidad en Bizkaia. El director del centro Juan Anjel San Vicente y la jefe de estudios Marivi Marco cuentan los pormenores de este largo proceso y recuerdan los retos del movimiento de ikastolas para contribuir a la euskaldunización de la formación profesional.

TXORIERRI REJOINT LE MOUVEMENT IKASTOLA

Le Collège Polytechnique Txorierrri a signé en janvier dernier une convention avec la Fédération des Ikastola de Biscaye prévoyant le développement de l'euskara dans les services offerts aux élèves par cet établissement d'enseignement professionnel, le seul de toute la Biscaye à posséder le label de qualité Q d'Or. Juan Anjel San Vicente, directeur du centre, et Marivi Marko, chef d'études, ont rappelé la volonté du mouvement ikastola de proposer un enseignement professionnel en euskara.





ZIGOR IBARZABAL ETA BEATRIZ GEREKA, TXANTXIKU IKASTOLAKO JOLASTOKIAN. EZKERRETIK ESKUMARA IKASLEAK CEREMONY DAY OSPATZEN SORGIN BIHURTUTA.

FORTNIGHT IMMERSION TO "EXPLORERS"

Iraileko lehen hamabostaldia ingelesean murgilduta

Harry Potterrek sei urte behar izan zituen Hogwar-eko Magia Eskolan aztia izaten ikasteko. Ikastolako 5. mailako ikasleek hamabost egunetan ikasten dute FIE (Fortnight Inmersion to "Explorers") murgilketa proiektuari esker. Irailaren lehen hamabostaldian burutzen dute proiektua ikastolen hizkuntz proiektuarekin lan egiten duten hainbat ikastolatan. Gu Oñatiko Txantxiku Ikastolan izan ginen, ingelesaren lanketan aitzindarien taldekoa izan zelako. Gela barruko eta kanpoko jolasak ere lantzen dituzte. Eta hori guztia ama hizkuntza ingelesa duten monitoreekin.

"Artigalen sistemarekin hasi ginen beste zazpi ikastolarekin batean 91-92an lau urteko umeekin ingelesean lantzen", hasi zitzaigun **Beatriz Gereka**, Txantxiku Ikastolako Ingeles arduraduna hogeitau urte hauetan egiten duen lana agertzen; hori guztia, LH5.eko ikasleekin ikasturte hasieran egiten duten Fortnight Inmersion to "EXPLORERS" izeneko murgilketa proiektua zer

den esplikatzeko hasi aurretik. Jose Maria Artigalekin lanean hasi aurretik Glasgow-en bi hilabetez egona omen zen irakasle talde bat ingelesean lantzeko bide berriak ezagutzen, Eusko Jaurlaritzak ordainduta. "Artigalen sistema oso ona iruditu zitzaidan, baina lan handia eskatzen zuen. Erruki niola esan nuen orduan proiektu horretan sartzen zen irakasleari, eta, gauzak nola



diren, niri tokatu zitzaidan sartzea. Aitzindariak izan ginen ingelesaren arloan. Oso ibilbide polita egin dugu, baina lehen urtea gogorra izan zen. Zazpi ikastola horietako irakasleak biltzen ginen Gipuzkoako Ikastolen Elkartearen material didaktikoak prestatzeko ere. Bizpahiru egun ematen genituen unitate bat prestatzen. Guk egiten genituen ariketak eta marrazkiak, eta geuk ateratzen genituen multikopian", jarraitu zuen Beatrizek. Haren ikasle ohia izan zen, eta orain Ingelesaren ardura partekatzen duen Zigor Ibarzabal irakasle gaztea du ondoan.

Ikastolen Elkartearen eskutik, Artigalen sistemaren ondoren Eleanitz proiektua etorri zen, eta ikastolen Hizkuntz Proiektua (HIZPRO) definitu zen gero. "Esperientziatik abiatuta egin da ibilbide hau guztia. Artigalek berak ere aldaketa handiak ezarri zituen bere sistemari. Ikastolak haren froga-lekua izan ginela esan ohi du. FIE bera ere (Fortnight Inmersion to "EXPLORERS"), premia batzuei

erantzuteko jarri zen martxan", bukatu zuen Beatrizek.

HAMABOST EGUN SORGIN EDO AZTI IZATEKO

1997an sortu zen FIE, eta gero eta ikastola gehiago sartu dira proiektuan. Aurtengoa izan dute Oñatiko Txantxikun lehen urtea. "1997an Axular Lizeoa izan zen lehen esperientzia egin zuena. Haztegi Ikastola sartu zen hurrengo urtean eta taldea ugaltzen joan da. Beti LH5.eko ikasleekin egiten da hamabost eguneko murgilketa lan hori. DBHra begira beste ikastetxe batzuetako ikasleekin elkartrukeak egiten hasten dira, ingelesa erabiliz e-mailak eta beste zenbait bitartekoren bidez komunikatzen. Horretarako errefortzu baten premia ikusten zelako jarri zen martxan esperientzia, eta



horretan izugarri laguntzen du hamabost eguneko murgilketa", hasi zen Zigor Ibarzabal.

Bosgarren mailara arte ipuinetan oinarrituta lantzen da ikastoletan ingelesa, eta LH5ean hasten dira proiektuetan oinarrituta lan egiten. "Mugarritzat LH5 hartzen dugu eta hamabost eguneko murgilketa honetan ere proiektu bat lantzen da. Gela barruko eta kanpoko jolasak egiten dituzte eta sorgin edo azti izateko ikastaro bat egiten dute; hori da lantzen duten proiektua. Formula magikoak esaten, edabeak prestatzen, konjuroak egiten ikasten dute. Hirunako taldetan banatzen dira, eta talde bakoitzak animalia baten izaera bereganatzen du. Mozorrotu egiten dira, edabeak egiteko osagarriak ekarri behar dituzte eta osagarri horiek gehienak zikinkeriak direnez, izugarri gustatzen zaie. Eta akelarre antzeko batekin bukatzen da ikastaroa. Edabe horietako

bakoitzak, noski, dohain harrigarriak ditu", erantsi zuen Beatrizek.

Harry Potter-ek sei urte behar izan zituen Hogwar-eko Magia Eskolan azti izaten ikasteko. Ikastolako 5. mailako ikasleek hamabost egunetan ikasten dute. "Sorginez edo aztiz jantzita, eskuetan kandela bana dutela egiten dute azken antzerki hori, guk Ceremony Day deitzen dioguna. Monitoreek eramatzen dute ikastaroaren martxa; guk lagundu baizik ez diegu egiten", gogoratu zuen Zigorrek.

Bi asteko murgilketak abantaila handiak ditu atzerriko hizkuntza baten lanketan. Ama hizkuntza

ingelesa duen norbaitekin egun osoa igarotzeko ingelesez hitz egitera bultzatzen du. "Urtean zehar hiruhilabeteko batean adina ordu sartzen dituzte hamabost egunetan", erantsi zuen Beatrizek.

Horretarako hiru monitore ekarri dituzte, hirurak ama hizkuntza ingelesa dutenak. Tartean ikasle ohi bat dago, ama AEBkoa duena. "Arratsaldetan akademietan lan egiten duten irakasleak dira gehienetan, eta guk gure metodologiari buruzko prestakuntza bat ematen diegu. Testu liburuen mundutik datoz haiek eta gure lan egiteko modura jauzi handi samarra egiten dute. Ikastoletan egiten den lana ezagutzen ez dutenak harritu egiten dira daukagun maila ikusita", esan zuen Zigorrek.

"Beti LH5.eko ikasleekin egiten da hamabost eguneko murgilketa lan hori. DBHra begira beste ikastetxe batzuetako ikasleekin elkartrukeak egiten hasten dira, ingelesa erabiliz e-mailak eta beste zenbait bitartekoren bidez komunikatzen."

INGLÉS PARA APRENDICES DE BRUJOS

Txantxiku de Oñati es una de las ikastolas pioneras que comenzó a trabajar el inglés con el sistema de Artigal en 1991. Uno de los muchos proyectos que con posterioridad han cuajado en torno al aprendizaje de esta lengua en las ikastolas es el FIE (Fortnight Inmersion to "Explorers"), que se lleva a cabo con alumnos de quinto de

Primaria en la primera quincena de septiembre. Se trata de un proyecto de inmersión con monitores cuya lengua materna es el inglés y cuya finalidad es el refuerzo del inglés hablado. Trabajan en base a juegos y realizan un curso de magia y hechicería, al estilo de Harry Potter.

APPRENDRE À ÊTRE SORCIER EN ANGLAIS

L'ikastola Txantxiku d'Oñati est l'une des premières ikastola à avoir commencé à enseigner l'anglais avec le système Artigal en 1991. Depuis, les ikastola ont travaillé cette matière avec de nombreux projets et notamment le projet FIE (Fortnight Inmersion to "Explorers") qui sera développé avec les élèves la première

quinzaine de septembre. Il s'agit de mettre les élèves en immersion avec des enseignants ayant l'anglais pour langue maternelle pendant et en dehors des cours. Ils apprennent par le biais de jeux et prennent par exemple des cours de magie, comme Harry Potter.


MIREN KORTABARRIA, LUCY POND ETA ITZIAR ORMAETXEA IRAKASLEAK ISILIK POZOI MAGIKORAKO SEKRETUAK GORDE NAHIK.

iparralde:



“Bi gela handi ditu, bakoitzean 30 haur sartzeko modukoak, eta baldin egunen batean beteko balitz, eranskin bat egiteko lekua utzi dugu. Getaria, Ahetze, Arbona eta Bidarteko ikasleak bilduko ditu.”

Elorri Espil zuberotarra da, Ozazekoa. Ama, Maite Etxeberria, Donapaleuko ikastolako irakaslea da eta aita AEK-ko irakaslea Maulen. **“Haurtzaindegi batean lan egin nuen hiru urtez eta umeekin irteerak egiten laguntzen ibili naiz Mauleko ikastolan nahiz Donapalaukoan”**, esan zigun. Inaugurazio ekitaldia prestatzen ari dira dagoeneko, baina aurretik ingurua txukundu eta lanak bukatu nahi dituzte. **“Guraso elkartean lau bakarrik gara eta laguntzaile zenbait. Gutxi gara, baina oso giro ona dugu”**, esan zuten Olivierrek. •



“Ikastola honen bultzagile nagusietako bat Ottabi Irigoien izan da, Biarrizko ikastolako irakaslea. Ikastola honen sorreraz ari garelarik, ezin dugu bere izena ahanzi.”

“Larresoroko eskola horretan ere euskaraz ematen nuen, baina nire helburua Seaskan lan egitea zen”, esan zuten. Kantuarekin umetatik izan du harreman estua. **“Etxean**

betidanik kantatu dugu edozein bazkari edo afariren ondoren. Miren eta Amaiarekin batean nik hamar urte nituela uste dut hasi ginela. Alduden kantatu genuen lehen aldiz”, esan zuten.

Elorri Espil laguntzailea sartzen da goizeko 7,30etan, bera arduratzen baita goiz eta arratsetako haurtzaindegi orduz eta eguerdiko otorduz. Paxkalin klase orduak ematen ditu.

Lau ikaslerekin lan egiteak dituen abantailaz galdetu genion. **“Oso egun gutxi dira lanean hasi ginela, eta familiakoak direla iruditzen zait. Oso harreman berezia sortuko dela uste dut gure artean”**, erantzun zuten.

PAXKALINE AIRE, ANDEREÑOIA ETA ELORRI ESPIL, IKASTOLAKO LAGUNTZAILEA, IKASTURTE HASERAN POZEZ ZORATZEN.

jendeak badaki euskaraz, baina gazteen artean asko galdu da, eta egoerari buelta ematea da ikastolaren helburua. **“Ikastola honen bultzagile nagusietako bat Ottabi Irigoien izan da, Biarrizko ikastolako irakaslea. Ikastola honen sorreraz ari garelarik, ezin dugu bere izena ahanzi”**, esan zuten Olivierrek.

Duela bi urte jarri zuten martxan proiektua. Hasieran zortzi familia ziren haurra ikastola ekartzekoak, baina lanak oso berandu bukatu dira eta batzuk atzeratu egin ziren. **“Dena den, datorren ikasturtean 15 izango dira”**, erantsi zuten lehendakariak.

Eraikuntzaren gastuak eta andereñoaren soldata Seaskak hartuko ditu bere gain, baina laguntzailearen soldata Uhabia guraso elkarteak atera beharko du. **“Dagoeneko antolatu ditugu ekitaldi batzuk. Bidarteko elkarteek asko lagundu digute. Udan turista asko izaten da hemen eta ikuskizun handi bat antolatu genuen, esate baterako, abuztuaren pilota partidekin eta dantza erakustaldi batekin”**, jarraitu zuen Olivierrek.

Bidart eta Getaria dira laurretan handienak: lehenak 1.500 bizilagun ditu eta

Bidartek bost mila eskas. Olivier irakaslea zen eskola publikoan eta 2007an, eskulangintza maite zuelako, elektririk lanean hasi zen. Aurten Seaskako Integrazio Batzordean hasi da lanean. Euskaldun berria da, Bordeleko eskal etxean hasi zen ikasten ikasketak egiten ari zelarik eta oso ondo hitz egiten du.

■ PAXKALIN AIRE KANTARIA

Uhabia ikastolara doazen haurrek beste haur guztiek ikasten dutena ikasiko dute, eta horretaz gainera kantuan ere bai, Paxkalin Aire, Aire Ahizpak taldeko kidea, baita andereñoa. **“Olivierrek esan zidan irekitze ekitaldian ez duela izango kantariaren bat bilatzen lanik, nirekin kontatzen duela”**, esan zuten Paxkalinak.

Mixel Aire bertsolariaren alaba gazteena da, Fernando Aire “Xalbador”en biloba. Hiru ahizpa dira, kantuan ezagutzen ditugun hirurak. Administarrari ikasketak egin eta bulego batean hasi zen lanean, baina aspertu egiten zen eta, hurrekin lan egiteko ametsa zuenez, irakasle ikasketak egin zituen; kristau eskoletan ibili da bi urtez eta aurten hasi da Seaskan.

MUNDUKO IKASTOLA TXIKIENA BIDARTEN

Getaria, Ahetze eta Arbonako haurrak ere bilduko ditu

Handia izateak baditu bere abantailak, baina txikia izateak ere bai. Irailean Bidarten zabaldu zen ikastola da ezagutzen dugun txikiena. Lau ikasle bakarrik ditu, baina eraikin berriak 60 bat haurrentzako lekua du. Bertako emakume euskaltzale batek utzi zuen lur saila ikastola egiteko eta Seaskak eraiki du.

Gure txikitako ikasgelako argazkietan jendetza agertu ohi da, batzuk eserita eta besteak zutik. Bidarteko Uhabia ikastolako ikasleak ere handituko dira egunen batean, eta beren gelako argazkiak erakusten hasten badira, laukote bat ikusiko da irudian, izkina batean Paxkalin Aire andereñoia eta bestean Elorri Espil laguntzailea dituztela. Eguberriak aurretik

bosgarren bat hasiko da eta datorren ikasturteari begira kopurua handitzea espero dute, eraiki duten ikastola berriak bi gela handi baititu, bakoitzean hamabost bat haur sartzeko modukoak, logela, komunak, jolastoki estalia eta beste hainbat zerbitzuekin batean. Ikastola berria Donostiatik Baionara doan errepidean elizaren parean eskuin aldera begira jarri eta gain

batean dago, Ramuntxo izeneko jubilatutako etxetik oso gertu. **“Bi gela handi ditu, bakoitzean 30 haur sartzeko modukoak, eta baldin egunen batean beteko balitz, eranskin bat egiteko lekua utzi dugu. Getaria, Ahetze, Arbona eta Bidarteko ikasleak bilduko ditu. Orain ditugun lau ikasleak, hain zuzen, herri horietakoak dira: Iban**

Mioque, nire semea, Ahetzekoa da; Unai Zabala, Gaizka Zabala dantzariaren semea, Getariakoa, Ainhoa Vernochet eta Elai Pinaquy, Bidartekoak”, hasi zitzaigun kontu-kontari Olivier Mioque lehendakaria. Herri horiek hurbilen ziztuzten ikastolak Donibane Lohizuneko eta Biarrizkoa ziren. **“80ko hamarkadan izan genuen ikastola bat Bidarten. Sei urtez iraun**

zuen zabalik etxe zahar batean eta orain gure elkartean den kide bat bertan ibilia da. Ikastola horretako andereñoak, Marie-Pierre Jorajuriak, Seaskan jarraitzen du lanean, Donibane Lohizuneko da, eta oso hunkiturik geratu zen orain egun batzuk ikastola berria ikustera etorri zelarik”, jarraitu zuen Olivierrek. Lau herri horietan adineko

naifarroa:



MUXI MARIÑELARENA, ZUZENDARIA; JOSU IMAZ, LEHENDAKARIA; JOSEBE SAGASTIBELTZA ADMINISTRARI BURU ETA PELLO URZELAI, LEHENDAKARI ORDEA, UMIEZ INGUURATUTA URRIAREN 18RAKO GONBIDAPENA LUZATZEN.

NAFARROA

BERIAIN MENDIARI BEGIRA

OINEZ

Arbizu, Lakuntza eta Arruazu lotuko ditu ibilbideak, eta Etxarrin ikastola berria egiteko izango da

ETXARRIKO ANDRA MARI IKASTOLAK 40 urte bete ditu aurten.

Badira urte batzuk eraikin berriarekin amets egiten hasi zirela. Lur-saila eskuratzeko tramiteak bukatzeko zorian dituzte, eta eraikuntza lanak martxan jartzeko datak ere aipatzen hasi dira. Baina hori guztia bideratzeko Nafarroa Oinez handi bat egin nahi dute. Eguna urriaren 18a da; ibilbidea, berriz, Arbizu, Lakuntza eta Arruazu lotzen dituen 9,5 kilometroko bidea. Bide horretan zazpi mugarri egongo dira, zazpi gune, zein baino zein animazio gehiagorekin.

Andra Mari Ikastola ez da Etxarri Aranazkoa bakarrik. Sakanako 14 herritako ikasleak biltzen ditu, eta herri horiek 40 urtean ikastolari egin dizkioten ekarpenak eskertu nahi izan dituzte ibilbidea Arbizu, Lakuntza eta Arruazura eramanez. Bederatzi kilometro eta erdiko bideak Beriain (San Donato) mendiaren begiradapean zeharkatuko ditu zelaiak eta soroak. Bertatik paraje ikusgarriak miretsi daitezke: Urbasa, Andia mendikatea eta Aralar, guztien gainetik Beriainen irudi ikusgarria nabarmentzen bada ere. "Ibilbide laua eta erraza da, baina laburragoa egin nahi dutenentzat bigarren aukera bat ere jarri dugu. Zazpi gune izango ditu, eta egitaraua osatzeko

orduan bakoitzari eite berezi bat ematen saiatu gara, gazte girokoen eta familia girokoen artean oreka bat bilatuz", esan zuen Isabel Elizalde NIEKO koordinatzaileak. Andra Mari Ikastola Etxarri Aranazko garai bateko eskola zaharretan eta aurrean zituen maisuen etxeetan dago kokatuta. Orain sei bat urte hasi ziren eraikuntza berri baten ametsaz hitz egiten, baina ordurako herriko hirigintza plana onartua zegoen, eta kosta egin zaie ondoren lur sail egoki bat aurkitzea. "Utzubar Txiki deitzen zaion eremuan egingo dugu ikastola berria. Eskola publikoa han dago eta, ikastolaz gainera, 0-3 urtekoen ikastetxea eta kiroldegia egin nahi ditu Udalak bertan. Horretarako, ordea, lur eremu zabalago baten 'egituratzeko aldaketa' tramitatu behar izan dugu, eta luze jo digu. 20.000 metro koadro

hartzen ditu aldaketa horrek, eta ikastolak 6.000 hartuko ditu. Lur sail horretan 3-16 urtekoen eraikuntza egin nahi dugu, nahiz eta lehen fase batean erdia bakarrik altxatuko den, ikasle erdiak egoitza zaharrean utziz. Oso baikorrak garenok udaberrian lanean has gaitzkeela uste dugu, eta gauzak ondo bidean 2011-2012 ikasturtean inauguratuko dugula, baina badaude ezkorragoak ere", esan zuen Josu Imaz ikastolako lehendakariak. Andra Mari Ikastolako ez dauka ondarrerik, baina Josebe Sagastibeltza, ikastolako administrari burua, baikorra da eta azkar

Gobernuztik ikastola berriak eraikitzeko diru-laguntzak nekez ematen direla kontuan izanik, orain bi urte hasi ziren Andra Mari gurasoak diru pixka bat aurreratzen, eta mailegietara jo beharko dute. "Eta orain 40 urte bezala, barrakak eta txosnak muntatu eta zozketak antolatuz jarraitzen dugu", esan zuen Imazek.

JOLASTOKIRIK EZ Bi Nafarroa Oinez egin dira Etxarrin, eta 89koaren ondotik ikastolak aurrean zituen maisuen etxeak egokitu zituen gelak ateratzeko. "Ni eskola zahar hauetan ikasia naiz. Herri gunea da eta asko gustatzen zaigu lekua,

"LUR EREMU ZABALAGO BATEN 'EGITURATZEKO ALDAKETA' TRAMITATU BEHAR IZAN DUGU, ETA LUZE JO DIGU. 20.000 METRO KOADRO HARTZEN DITU ALDAKETA HORREK, ETA IKASTOLAK 6.000 HARTUKO DITU."

aurkitzen dio egoerari alde ona: erakunde batean ondarrerik handiena berau osatzen dugun giza taldea da (bazkide, herritar...). Eta profesional talde on bat. Guztien inplikazioa ezinbestekoa baita proiektua aurrera eraman ahal izateko", esan zuen. "Bien bitartean, gu gure premien azterketa egiten ari gara; dagoeneko aukeratu dugu arkitekto taldea, lehenbailehen txostena eman eta aurreproiektua egiten has daitezten", erantsi zuen Pello Urzelai lehendakari ordeak. Arkitekto taldea aukeratzeko lehiaketa bat egin zuten, eta Altsasuko Arqyme taldea suertatu zelarik garai. Oso garbi dute ikastolako arduradunek epeka zabalduz joateko moduko proiektua nahi dutela. Nafarroako

baina ez dago aski lekuri 432 ikasleko ikastola batek behar dituen zerbitzuak antolatzeko. Jolastokirik ez dugu, esate baterako, eta aurreko kalea itxi behar izaten dugu ikasleak jolas egitera ateratzen direnean. Matrikulak goraka doaz eta ezin dugu horrela jarraitu", esan zuen Muxi Mariñelarena zuzendariak. Jolastokirik ez dute, baina Andra Mari Ikastolatik atera diren kirolariak asko dira. Zerrenda egiten hasi ziren zuzendaria eta administrazioburua: Aitor Zubieta pilotaria, Egoi Martinez eta Gorka Verdugo txirrindulariak... Egiten ari diren aurreikuspenen arabera, HH eta laugarren mailara arteko LH egoitza berrira joango liriteke, eta LH5.-6. eta DBH egoitza zaharrean utziko dituzte. "DBHn





“UTZUBAR TXIKI DEITZEN ZAION EREMUAN EGINGO DUGU IKASTOLA BERRIA. ESKOLA PUBLIKOA HAN DAGO ETA, IKASTOLAZ GAINERA, 0-3 URTEKOEN IKASTETXEA ETA KIROLDEGIA EGIN NAHI DITU UDALAK BERTAN.”

◀ *Ianordu trinkoa dugu eta ez dira bazkaltzera gelditzen. Hori izango da banaketa egiteko erabiliko genukeen lehen arrazoiak*, esan zuen zuzendariak.

“Pixka bat urrutira begira jarrita, Batxilergoa eta Lanbide Heziketako zikloen aukera ere aztertzen hasita gaude Altsasuko ikastolarekin batean. Baina orain badugu aurreko lanik. Horiek hemendik hamar bat urteko kontuak izango dira”, erantsi zuen.

■ **URTEKO EKINTZA NAGUSIAK**
Nafarroa Oinezek dituen diru-iturrien artean badira bi nabarmendu beharrekoak: bata sanferminetan antolatzen duten txosna erraldoia da, eta beste arte erakusketa. *“Hamaika eguneko saioa egin genuen Iruñeko festetan eta bostehun bat lagunek hartu zuen parte lanean. Lehen egunean, esate baterako, ia lau mila ogitarteko saldu genituen”,*

esan zuten. Arte erakusketa Iruñeko Gotorlekuan zabaldu zuen, Donostiako Kutxaren aretotik pasatu da eta Altsasuko lortian dago orain. *“Hamargarren urtea zuen aurtan erakusketak, eta Jose Ramon Anda hemengoa, Bakaikukoa, dela kontuan izanik, eskultoreari leku berezia egitea erabaki genuen eta bere eskultura baten errepikak egin ditugu, baina urtero bezala Euskal*

Herriko artista ezagun askok hartu dute parte, esate baterako, Txillidaren semeak, Dora Salazarrek, Aizkorbek, Goenagak, Zumetak eta beste hainbatek. Dorak, bestalde, altsasuarra izanik, arte erakusketatik kanpo ‘Beriainen itzalean’ izeneko lamina bilduma bat egin zigan eta oso ondo saldu dugu. Ikastola osatzen duten hamazazpi herrietako irudiak biltzen ditu liburua”, esan zuten

Isabel Elizalde eta Marta Igoa koordinatzaileak.

■ **EGITARAU, BIKAINA**
Lehen gunea Olatzea hotelaren inguruan dago, baina oso zabala izango da eta Arbizuko kaleetaraino iritsiko da bertako giroa, paellada egingo baita kiroldegian eta artisauak izango baitira kalean. *“Familia giroko gune bat da; egitarauari hasiera emateko, ehun lagun baino gehiagok parte hartuko duten Castellars-ak egingo dituzte Kataluniatik etorritako talde batzuk”,* esan zuen **Marta Igoa**, Etxarriko koordinatzaileak. Txan Magoa, Argiñe Sound System, Betizu eta Gabezin plaza taldea izango dira bertan. Bigarren gunea ere Arbizun egongo da, Sakana

ISABEL ELIZALDE ETA MARTA IGOA, NAFARROA OINEZ-eko KOORDINATZAILEAK: NIEKOA ZEIN ANDRA MARI IKASTOLAKO BERRIAIN MENDIAREN MAGALEAN.



QUIEN LA SIGUE LA CONSIGUE

Seis años han necesitado los responsables de la ikastola Andra Mari de Etxarri Aranatz, que acoge a alumnos de 14 localidades de la zona, para tramitar la recalificación de un nuevo edificio. Hablan ya de posibles fechas para el comienzo de las obras, mientras ultiman los preparativos del

Nafarroa Oinez que discurrirá sobre un circuito espectacular que une las poblaciones de Arbizu, Arruazu y Lakuntza y que cuenta con un extenso programa que incluye, entre otros, los actos de acogida de los representantes de las lenguas minorizadas de Europa con los que la ikastola ha estrechado lazos a lo largo del curso.



L'OBSTINATION PAIE

Il a fallu six ans aux responsables de l'ikastola Andra Mari d'Etxarri Aranatz, qui accueille des élèves issus de 14 localités environnantes, pour obtenir le reclassement des terrains sur lesquels sera construit le nouvel édifice. Et en même temps qu'ils débattent de la date de début des travaux, ils s'attèlent à la

préparation du Nafarroa Oinez qui aura lieu à Arbizu, Arruazu et Lakuntza, autour d'un spectaculaire circuit. Au programme de la journée, des animations avec des représentants de langues minoritaires européennes avec lesquels l'ikastola a entretenu des relations tout au long de l'année.

“TXIKIAK HANDI”, HIZKUNTZA TXIKIEI GORATZARRE

Aurtengo leloak (Txikiak handi) ez die bakarrik Andra Mari Ikastolan parte hartzen duten 17 herri txikiei goratzarre egiten, baita Europako hizkuntza gutxituei ere. *“Bost hizkuntza gutxitutako ordezkariekin egin ziren harremanak: aragoiera, katalana, okzitaniera, bretoiera eta gaelikoarekin. Urtean zehar Andra Mari Ikastolako ordezkariak euskararen eta euskal kulturaren berri ematen izan dira bost herrialde horietan. Hizkuntza gutxitu gehiagotako ordezkariekin egin ziren hasieran harremanak, baina bost hauek bakarrik eraman dira aurrera, eta Nafarroa Oinez ezagutzera herrialde bakoitzetik bi ordezkari etorriko dira”,* esan zuten bi koordinatzaileak. Abenduan Aragoian izan ziren Andra Mari ordezkariak, urtarilean Katalunian, martxoan Okzitanian, ekainean Britainian eta abuztuan Galesen. Behatokioren laguntza izan dute harreman horiek egiteko orduan. Katalunian, esate baterako, Parlament-eko lehendakariarekin elkarrizketatzera iritsi ziren. Hiru egun emango dituzte orain ordezkari horiek Sakanan. Ostiralean iritsiko dira eta Behatoki eta beste hainbat erakundetako ordezkariekin batean, bakoitzak bere herrialdeko aurkezpen laburra egingo dute. Horrekin batera, aldez aurretik idatzitako manifestu bat izenpetuko dute eta prentsara zabaldu ere bai. Larunbatean Altsasuko ikastolara bisita egingo dute eta igandean Nafarroa Oinez hartuko dute parte. *“Azken helburua hizkuntza gutxituen inguruko sare bat osatzea da”,* erantsi zuen **Marta Igoa** koordinatzaileak. •

Programa

Eskolarako Ingurumen Heziketa

Ikastetxeendako jarduera eskaintza

- Ura**
“Hornidura eta Saneamendua”
- Hondakinak**
“Kontaminazioa, Hondakinak eta Birziklapena”
- Garraioa**
“Eskualdeko Hiri Garrantia eta Abuztokoaren inbentarioa”
- Iruñerriko Ibai Parkea**
“Ingurumen Heziketarako”

Parte hartzeko erreserba:
Eskari fitxa honi bidali behar da: Chinchilla jeneralaren k.7 - 31002 Iruña
T 948 423 285 - 948 423 194
F 948 423 230
www.mcp.es/educacion_ambiental/brote3.htm

IKASTURTEA 2009-2010

IZENA EMATEKO EPEA ZABALIK
Iruñerriko ikastetxeen eskaintzaren buletina bidali zait.

PATXI ARELLANO, NAFARROA OINEZEN LANEAN

Lankide berria du Nafarroa Oinezek, Patxi Arellano, aurrerantzean segurtasun planaz arduratuko dena. 1999ko edizioaren koordinatzailea izan zen Jaso ikastolan, iaz muntaia batzordeko arduradun eta aurtan NIEtik kontratatu dute segurtasun planak burutzeko. *“Nafarroa Oinezera gero eta jende gehiago etortzen da eta ezinbestekoa genuen segurtasun planak oso zehatz egiten hastea; horretarako pertsona aproposa aurkitu dugu. Jaso ikastolako irakaslea da Arellano eta lan berria bere ikastolako lanarekin batean egingo du”,* esan zuten **Isabel Elizalde**ek. •



IKASTOLEN ELKARTEKO ZUZENDARITZA OSOA OSATZETZKO DAGODEN ARREN, HONA HEMEN 11 LAGUNEN LANTALDEA.

ehi

euskal herriko ikastolak

Artezkaritza eta Zuzendaritza taldeak aurkeztu zituen EHIk Leidorren

Ikastolak ez daudela atzera egiteko prest jakinarazi zuen Koldo Tellitu lehendakariak

Tolosako Leidorren zuen Euskal Herriko Ikastolak europar kooperatibak irailaren 24an bere lehen ekitaldi publikoa Artezkaritza Kontseilu eta Zuzendaritza Talde berriak aurkezteko. Erakunde berriko lehendakariak, Koldo Tellituk, esparru administratibo bakoitzean ikastolek dituzten lehentasunak aipatu zituen eta, EAERI dagokionez, Eusko Jaurlaritzako agintari berrien aurrean Ikastolen Elkarteak dituen posizioak finkatu zituen ikastoletako 200 bat ordezkariaren aurrean egin zuen hitzaldian. Ekitaldia Iñaki Perurenaren ikuskizun xume baina iradokitzaile batekin abiatu zen eta ikastolako ikasle izan eta gaur Euskadiko Orkestran jotzen duten musikariaren emanaldiarekin bukatu zen. > > >



HAMAHERU KIDEE OSATZEN DUTE EHIREN ARTEZKARITZA BATZORDEA, EKAINAREN 13EZ GEROZTIK.

Iñaki Perurena harri-jasotzailearen ikuskizun simple baina iradokitzaile batekin zabaldu zuen Euskal Herriko Ikastolak europar kooperatiba elkarteak Tolosako Leidorren egin zuen ikasturtearen irekitze ekitaldia. Ahots batek Arestiren poema zatiak irakurtzen zituen bitartean harriari jasoaldiak ematen hasi zen eta aurrean zintzilik zuen oihal sarean Euskal Herriaren mapa osatu zuen, berehala, mapa horretan herrialdeen arteko mugak ezabatzeko, "MUGARIK GABEKO EUSKAL HERRIA, MUGARIK GABEKO EUROPA" eta gisako leloak idatzirik agertzen bitartean. Ikastolek estatuen mugen gainetik sortu duten erakunde berriaren izpiritua adierazten zuen ikuskizunak. Ikusle edo entzule moduan Euskal Herri osoko ikastoletatik etorritako 300 bat ordezkari zeuden.

Kike Amonarriz eta Arantxa Kaltzada aurkezleek

hitzen ondotik igo zen **Koldo Tellitu** EHIko lehendakaria agertokira. "Inoiz ez dugu egituretan tamaina honetako urratsik eman barnean arazorik sortu gabe eta oraingoan ere sortu dira arazoak, baina orain arte gainditu ditugun moduan gaindituko ditugu berri ere. Gainditzeko bidean dira jada. Denbora beharko da, baina denbora horretan zailtasunak mederatzeko zubigintza abian da jada bi norantzatan. Talde sena oso errotuta daukagulako. Taldea gara. Taldean sendotzen da ikastola bakoitza, Trapagakoa zein Ortaizekoa, Oiarzungoia zein Tafallakoa. Jakin ezazue horrela dela. Denok gaude Nafarroako ikastoletan pentsatzen, ziur naiz.", esan zuen hasi bezain laster eta talde senaren gainetik bestelako interesak lehenesten dituztenen jarrerak labur salatu ondoren, aurrera begiratzeko ordua zela aldarrikatu zuen.

Esparru administratibo bakoitzean ikastolek dituzten egiteko nagusienei eman zien errepasoak segidan. Iparraldeari dagokionez, hizkuntza gutxituen aitorza eta ofizialtasuna eskatzeko urriaren 24an Baionan egingo den manifestaldirako deia egin zuen agertokitik Koldo Tellituk. "Manifestaldi hori jendetsua izango bada, ikastolako jendeak mugitu behar du", esan zuen. Nafarroa Garaiko egoerari buruz, berriz, "Foru Gobernu bera kolokan egon daiteke euskararen inguruko jarrerak medio", bota zuen eta, nafar gizarteak, galdeketa soziologikoei erakutsi duenez, "Nafar gizarteak euskaraz jarduteko, euskarara iristeko eskubidea nahi du lurralde osoan. Gobernuan daudenek ez", erantsi zuen.

■ "EZ DUGU AMORE EMANGO"

Baina EAEn Gobernu osatu berri duen PSE-EERI eskaini

zior EHIko lehendakariak tarterik luzeena eta oso garbi utzi zien ikastolak ez daudela amore emateko prest. 1993an ikastolen baitan eragindako zauriaren ondotik PSE-EERekin izandako harremanak jorratu zituen. "2000. hamarkadaren hasieran barne gogoetarako txosten bat onetsi zuten PSOEn eta bertan hezkuntza sistemari buruzko kontzeptu interesgarriak bereizten ziren eta etenda zeuden harremanak berriro abian jarri genituen. Baina ikusteko dago orain, agintean daudenean, zer egingo duten", adierazi zuen. "Leku propioa egingez goaz sistemaren barruan. Autonomi Estatutuaren historia guztian egin ez den Eskolaren Legea beharko genuke iduria hezurramitzeko. Guk giza nortasuna bere osotasunean garatzeko helburuari eusten diogu. Giza eskubideekiko eta oinarriaz askatasunen

aldeko errespetua ezinbestekoak dira ikastoletako jardunean. Horieta oinarritutako kontzientzia kritikoa ikasleengan garatzea da gure egitekoa" jarraitu zuen. "Hezkuntza saileko arduradun berriek jakin behar dute ez gaudela prest azken urteetan eskuratu ditugun lorpenetan eta joeretan atzera egiteko. Krisia badago, eta argi dago hemen daukagula, murrizketak denon artean banatu beharko lirarteke, sistema osoan. Batzuen murriztu eta besteena ez, ez zaigu bide zuzena iruditzen. Ikuspegi orekatua beharko da. Bai, ikastolakideok, ondo entzun duzue. Garai zailak datoz. Eta txipa eguneratu beharra daukagu" aurreratu zuen.

Edozein modutara ere, Ikastolen Elkarteak hitz egiteko gogoak eta beharra dituela jakinaraziz bukatu zuen ere jarduna EHIko lehendakariak.

KIKE AMONARRIZ ETA ARANTXA KALTZADA. LUXUZKO AURKEZLEAK. IÑAKI PERURENA HARRI JASOTZAILAREN ERAKUSKETA ESANGURAZ BETERIKOIA. BERREHUNDIK GORA ENTZULE LEIDORREKO ARETOAN, BEGIAK ERNE BELARRIAK ZABALIK, INFORMAZIO EGARRIZ.

Artezkaritza eta Zuzendaritza taldeen aurkezpenak egin ziren ondoren eta talde bakoitzeko kideak banan-banan igo ziren agertokira igo ziren txaloen artean.

- 01 Joxi Sanguesa (Tuterako Argia ikastola),
- 02 Aitor Goitia (Laudio ikastola),
- 03 Murielle Leizagoien (Hendaiaiko Gure Ikastola),
- 04 Txumai Iturria (Zarauzko Salbatore Mitxelena),
- 05 Eugenio Jimenez (Oiongo San Bizente),
- 06 Juanjo Aranburu (Trapagako Itxaropena),
- 07 Maite Urmeneta (Kanboko Errobi),
- 08 Andoni Sarriegie (Beasaingo Andra Mendi),
- 09 Juan Karlos Gomez (Bilboko Urretxindorra),
- 10 Arantxa Manterola (Oiartzungo Haurtzaro),
- 11 Paxkal Indo (Elkarteko diruzaina. Ortzazeko Ikastola),
- 12 Xabier Arrieta (Elkarteko idazkaria. Armentia ikastola) eta
- 13 Koldo Tellitu (Elkarteko lehendakaria. Leioako Betiko Ikastola) dira ARTEZKARITZA Kontseilua osatzen dutenak.
- 14 Ellande Alfaro (Xibako arduraduna),
- 15 Hur Gorostiaga (Lurralde koordinatzailea),
- 16 Joseba Aginagalde (Lurralde koordinatzailea),
- 17 Idurre Maortua eta
- 18 Patxi Olabarria (Enpresa kudeaketarako taldekideak),
- 19 Manu Aurrekoetxea (Prestakuntza arduraduna),
- 20 Nagore Amondarain (Aisialdiko arduraduna),
- 21 Jose Luis Sukia (Enpresa kudeaketako arduraduna),
- 22 Abel Ariznabarreta (Hezkuntza arduraduna),
- 23 Imanol Igeregi (erakunde zuzendaria) eta
- 24 Arantza Munduate (Idazkari teknikoa) izango dira ZUZENDARITZA taldea osatzen dutenak.

ZUZENDARITZA




ARTEZKARITZA



ESZENATOKIRA IGOZTEN ARTEZKARITZA BATZORDEKIDEAK LEHENIK ETA ZUZENDARITZA TALDEKIDEAK ONDOREN. KOLDO TELLITU LEHENDAKARIA. EUSKADIKO ORKESTRAKO HARI MUSIKARIAK ARRIAGAREN LAUKOTEA JOZTEN.





EHI FIJA POSICIONES

El acto inaugural del presente curso, que tuvo lugar en el Leidor de Tolosa, sirvió para hacer las presentaciones de la nueva dirección de Euskal Herriko Ikastolak, entidad cooperativa de rango europeo constituida recientemente, y para marcar las posiciones de las ikastolas respecto a la política de los actuales responsables de

Educación del Gobierno Vasco. El presidente de la nueva entidad Koldo Tellitu aprovechó asimismo su discurso para hacer un llamamiento a la manifestación del día 24 en Baiona a favor de la oficialización del euskara y para recordar que la sociedad navarra sigue reclamando el derecho a desenvolverse en euskara en el conjunto del territorio.

EHI RÉAFFIRME SES POSITIONS

La cérémonie d'inauguration de cette nouvelle année scolaire, qui s'est tenue au Leidor de Tolosa, a servi à présenter la direction de la nouvelle entité européenne Euskal Herriko Ikastolak et à réaffirmer la position des ikastola concernant la politique menée par le Département Education du Gouvernement Basque.

Lors de son discours, le président de la nouvelle entité Koldo Tellitu a lancé un appel à la manifestation du 24 octobre prochain à Bayonne en faveur de l'officialisation de la langue basque et a rappelé la volonté de la société navarraise de pouvoir vivre en euskara sur l'ensemble du territoire.

Zatoz zientziaren aurpegi alaienaren bila!

gizarte ekintza

hezkuntza



ETORTZEN BAZARA EZ DUZU ALDE EGIN NAHI IZANGO!

- 170 esperimentu interaktibo
- Planetarium Digitala
- Planetarium Txikia
- Exploratoriumeko Simulagailuak: Errusiar Mendia eta Tranbia
- Animazio ekintzak eta tailerrak, adin guztietako jendeari zuzenduta
- Bestelako zerbitzuak: aparkalekua, kafetegia, denda, pic-nic gunea, ingurune aparta,...



ZIENTZIAREN KUTXAGUNEA
KUTXAESPACIO DE LA CIENCIA

**Zatoz Zientziaren
kutxaGunera**

Zientziaren kutxaGunea
Mikeletegia Pasealekua, 43-45 – 20009 Donostia
Tlf: 943 012 478. www.miramón.org
kutxaespacio@kutxagunea.org

zer nahi duzu bihar?